

## KONGRESUAN IZENA EMATEKO JARRAIBIDEAK

### VIII. REPS Kongresua Bilbo2020

2020ko martxoaren 11tik uztailaren 1era bitartean zabalik dago REPSen VIII. Kongresuan izena emateko epea.

Kongresuan parte hartuko duten pertsona guztiek eman behar dute izena, bai lan-mahaien koordinatzaileek, bai hizlariak baita entzuleek ere. Kongresuan izena emateak eskubidea ematen du osoko bilkuretan eta gaikako mahaietan parte hartzeko, aldi bereko itzulpen-gailuak erabiltzeko eta egun bakoitzerako aurreikusitako *coffe-breaker*ako, bai eta uztailaren 2ko (osteguna) eta uztailaren 3ko (ostirala) bazkarietarako ere.

Ezinbestekoa da Kongresuan parte hartzeko inskripzio kuotak ordainduta izatea, onartutako ponentziak aurkezteko, Kongresuaren partetik edozein ziurtagiri jasotzeko eta aurkeztutako ponentziak Kongresuko Akten Liburu Ofizialean argitaratzeko.

Maiatzaren 30era arte irekita dago “**kuota murriztuen**” inskribatzeko epea. Egun horretatik Kongresuaren hasierara arte, baldin eta lekurik badago, “**kuota osoen**” inskribatzeko epea irekiko da. Kongresuan izena emateko tarifak hauek dira:

INSKRIPZIO MOTA		DATAK	
		KUOTA MURRIZTUAK Martxoaren 11tik maiatzaren 30era	KUOTA OSOAK Ekainaren 1etik uztailaren 1era
<b>Panel-koordinatzaileak</b>	Panel-koordinatzaileak	75€	
<b>Beharpena</b>	Langabeak, ikasleak, hitzaldirik gabeko bertaratutakoak eta lanaldi partzialeko irakasle elkartuak, beste lan-loturarik ez dutenak	90€	120€
<b>Arrunta</b>	Plantillako irakasleak eta ikertzaileak, sektore publikoko eta pribatuko profesionalak, erretiratuak	150€	180€

Izena emateko, ezinbestekoa da [www.reps-bilbao.com](http://www.reps-bilbao.com) webgunera sartzea eta saioa hasia kongresua kudeatzeko aplikazioan. Erabiltzailea eta pasahitza Kongresuarekin zerikusia duten kudeaketa guztietarako (txostenak eta komunikazioak bidaltzea, Kongresuan izena ematea, etab.) erabiltzen diren berberak dira.

Saioa hasitakoan, Kongresuko parte-hartzaile gisa izena eman behar da, “Parte-hartzaile gisa izena eman” fitxan. Horretarako, matrikula-mota hautatu behar da (arrunta, beharretua edo panel-koordinatzailea), izen-ematearen baldintzak onartu eta datuak gorde, “Erosketa baieztatu” botoiaren bidez. Une horretatik aurrera, posible da behin betiko ordainketari lotutako proforma faktura bat lortzea, baldin eta hirugarrenek (enpresak, unibertsitateak, administrazioak, etab.) matrikula ordaintzea baimentzeko beharrezkoa bada.

Matrikula transferentzia bidez edo PayPal bidez ordain daiteke. Matrikularen sarrera Kongresuaren kontuan jasotzen denean gauzatuko da inskripzioa. Une horretan, mezu elektronikoa bat bidaliko zaio izena eman duen pertsonari, eta ordainketaren behin betiko faktura ere eskuratu ahal izango du.

Beharpena duen modalitatea aukeratuz gero, matrikula murrizteko eskubidea ematen duen egoeraren egiaztatzea erantsi behar da. "Hautatu fitxategi bat" botoiaren bidez erantsi behar da dokumentua.

Inskripzioak banaka edo taldeka ordain daitezke. Taldean izena emanez gero, alde aurretik beharrezkoa da Kongresuko idazkaritzarekin harremanetan jartzea ([secretaria@reps-bilbao.com](mailto:secretaria@reps-bilbao.com)).

Izena emateko formularioak aukera ematen du, halaber, Kongresuan parte hartzeko egokitzapenik edo laguntza teknikorik behar den adierazteko.